

ERREFERENTZIA: KD-807
TALDEA: RUPER ORDORIKA
IZENBURUA: HAIZEA GARIZUMAKOA

- 01.- Zure etxera noa 4:05
- 02.- Jakin nahi nuke 3:54
- 03.- Urrun, urrun 3:57
- 04.- Haizea Garizumakoa 4:19
- 05.- Argia 3:47
- 06.- Olhabideko Bordan 5:20
- 07.- Edertasunaz mintzo 5:01
- 08.- Errekazola 4:28
- 09.- Zorioneko Moilan 5:10
- 10.- Joan soseguz 3:19
- 11.- Zuhaitz alferra 3:38
- 12.- Sekulabelardiko kantaria (Mikel Laboari) 5:03

BEN MONDER: Gitarrak
SKULI SVERRISSON: Baxua
KENNY WOLLESEN: Bateria. Perk.
RUPER ORDORIKA: Ahotsa. Git. Akust.

01.- ZURE ETXERA NOA (R.Ordorika)

Zure etxera noa,
bidean gora noa
babeslekura.
Emaidazu gakoa,
behebarrukoa,
han itxaroteko
urrats ezagunen ttipi ttapa.

Eguzkiak irten du,
behingoz aske
neguko bihotzetik.
Goazen erreka aldera,
etxetik behera,
euriteen ondoren
zure baratzean zer dagoen.

Zure etxera goaz,
bidean gora goaz
hasiberrien pozaz,
baratza da eder-eder,
erreka aldea ere,
munduak badu onik
egin dezagun kantuan goxoki,
egin dezagun kantuan goxoki
munduak baitu onik.

ZURE ETXERA NOA. (Voy a tu casa)

Voy a tu casa, / voy camino arriba / al refugio. / Dame la llave / del portal / y esperaré allá / el
eco de tus pasos.
El sol se ha liberado por fin / del corazón del invierno. / Vamos hacia el río, / camino abajo, / a

ver qué quedó de la huerta / después de las lluvias.

Vamos a tu casa, / vamos camino arriba / con la alegría de lo recién comenzado. / La huerta está preciosa, / la vera del río también, / el mundo tiene sus cosas buenas, / cantemos suavemente. / Cantemos suavemente / porque el mundo tiene sus cosas buenas.

02.- JAKIN NAHI NUKE (Gematria) (R. Ordorika)

Platanerrak lerroz lerro
gerizpean gaudela,
iparrak arintzen du
paisaia postalezkoa,
ardo beltzak laztandu nau
bere karezi goxoaz,
mundu zahar hau, bat-batean
edertu izan balitz, zure ondoan,

Esan bezala, gu itzalean,
ni ezaxolaren plantan,
jakina da den guztia
ez dela konprenitzen ahal,
alabaina nonbait beharko
elkarmin honen gakoa,
egia ba da izen denak
baduela bere balio zenbakia,

*Zein, zein duzu
zeure Zenbaki hori,
zeure izenaren parekoa?*

Zure balio zenbaki horrek
hain nau zordun bilakatzen,
lotzen nau eta beldur naiz
“infinitu” ez den izanen,
baldin bada infinitua,
zeren morroi bihurtuko nauen,
neure balioa lehen zen “bat”
orain “erabat” ez ote den, zure ondoan.

Zein, zein duzu...

JAKIN NAHI NUKE (Gematria). (Quisiera saber)

Una hilera de plataneros, / nosotros estamos a la sombra, / el aire del norte aligera / este paisaje de postal, / el vino tinto me mima / con su dulce caricia, / como si este viejo mundo, de repente, / embelleciera, a tu lado.

Como decía, estábamos a la sombra, / yo me hacía el desinteresado, / ya se sabe que no es posible comprender / todo lo que pasa, / aún así en algún lugar estará / la clave de esta querencia que nos tenemos, / si es verdad que cada nombre / tiene su valor numérico...

¿Cuál, cuál es / tu número, / ese que equivale a tu nombre?

Tu valor numérico / me convierte en gran deudor, / me ata y tengo miedo / de que sea “infinito”. / Si es infinito, / ¿a qué servidumbre me someterá? / Mi valor antes era “uno” / Ahora parece que sea “todo”, a tu lado.

¿Cuál, cuál es...

03.- URRUN, URRUN (R.Ordorika)

*Urrun, urrun,
bihotzeko lagun,
hola deitzen ninduzun,
bihotzeko lagun.
Non da orain
lehengo berba goxoa?
Oihartzun da egun,
bihotzeko lagun.*

Agur esan eta,
poliki, poliki, sartu zinen
ahantzuraren auzunetan.
Erdikobidea,
erreka aldeko ametza ere
orain urrun dira zu gabe.

*Urrun, urrun,
bihotzeko lagun,
hola deitzen ninduzun,
bihotzeko lagun.
Non da orain
lehengo berba goxoa?
Oihartzun da egun,
bihotzeko lagun.*

Zure etxe aurretik
goizez pasatzen naizelarik,
atea ez duzu zabalik.
Gero eta urrunago,
gero eta tikiago
gogoan dena bakanago.

Urrun, urrun...

URRUN, URRUN. (Lejos, lejos)

*Lejos, lejos, / amigo del alma, / así me llamabas, / amigo del alma. / Dónde está ahora / tu dulce
palabra de entonces? / Hoy no es más que un eco, / amigo del alma.
Me dijiste adiós, / y, poco a poco, te adentraste/ en la casa del olvido. / Erdikobidea, / el roble
junto al río, / ahora quedan lejos sin ti.
Lejos, lejos, / amigo del alma, / así me llamabas, / amigo del alma. / Dónde está ahora / tu dulce
palabra de entonces? / Hoy no es más que un eco, / amigo del alma.
De mañana, al pasar / por delante de tu casa, / la puerta no está abierta. / Cada vez más lejano, /
cada vez más pequeño, / todo es más pobre en mi corazón.
Lejos, lejos...*

04.- HAIZEA GARIZUMAKOA (R.Ordorika)

Lagun zaharrekin elkartzen naiz bertan
kalamahastiak, kresala haitzetan,
bizitzako gudan etsi gabeak,
inoizko garizuma irrealenean.

Alaitasunez mintzo gara eguzkitan,
nahiz betiko asmo galduak gomutan,
bizitzako gudan bazter utziak,

gogora ekartzen ditugunean.

Berbetan orduko lagunen kontuak,
aspaldikoak bai, baina ez ahaztuak,
Garizumako haizea heldu da
areagotuz begien distirak.

*Jainkoari esker, elkarrekin gara,
ona ahazten da baina lehenago txarra.
Adio atzoko amets gaiztoa,
bide estuena ere aurrera doa.*

Hemen okerreko belaunaldikook,
ezertan asmatu ez dugunok,
norbere lotsaz ardura dadila
gu geureaz arduratzen bezala.

Betor biharkoa gaurkoa bezala,
lagun alaiak rona eta kresala,
betor haizea garizumakoa,
arratseko herriminak uxatzera..

Jainkoari esker, elkarrekin gara...

GARIZUMAKO HAIZEA. (Viento de Cuaresma)

Me reuno con mis viejos amigos en aquel lugar / de uvacaletas y salitre en las rocas, / con los
que no se rinden en la batalla de la vida, / en la cuaresma más irreal posible.
Hablamos bajo el sol con alegría, / aunque rememoremos los sueños perdidos de siempre /
cuando nos acordamos / de los marginados en la batalla de la vida.
Hablamos de los amigos de entonces, / de hace ya mucho, sí, pero nunca olvidados, / Ha llegado
ya el Viento de Cuaresma / y los ojos aún nos brillan más.
*Gracias a Dios, estamos juntos, / se olvida lo bueno pero antes lo malo. / Adiós a las pesadillas
de ayer, / hasta el camino más angosto sigue adelante.*
Aquí estamos los de la generación equivocada, / los que no hemos acertado en nada, / que cada
uno se ocupe de sus vergüenzas / que nosotros nos ocupamos de las nuestras.
Que el día de mañana sea como el de hoy, / rodeado de amigos alegres, ron y salitre. / Que venga
el Viento de Cuaresma, / y ahuyente la *morriña* del atardecer.
Gracias a Dios, estamos juntos...

05.- ARGIA (R. Ordorika)

Argia,
egun berria,
udan goizik egunsentiko
argia.
Gaua badoa
eta zure izenez dator
eguna.
Eguzkia heldu da
eta zure alaitasunez
argia.
Ilun dena
argitzear da
hau goiz berri bat zurekin.

Masustak janez

*bide alboko sasitik,
goiza ahaztu da
egin beharrekoaz.*

Eta munduan
beste asko lez
beti betiko
iraun zuen
argiak.
Negarrak, nekeak
ilunpean gorde zituen
argiak.
Soilik ziren onartuak
amaiera goxoko istorioak,
zeren eta ilun dena
argitzear baita,
hau goiz berri bat zurekin.

*Masustak janez
bide alboko sasitik...*

Egunak poliki doaz
urruti egin beharrekotik (neure menditik).
Goiz berri bat zure ondoan
eta ilun dena bazter utzi...

ARGIA (La luz)

Luz, / un nuevo día, / es la luz temprana / del amanecer / en verano.
La noche se va / y la luz viene / con tu nombre. / Ha llegado el sol / y con tu alegría, / viene la
luz. / Todo lo oscuro / está a punto de aclararse / en una nueva mañana contigo.
Comemos moras/ del zarzal del camino,/ la mañana se olvidó/ de toda obligación.
Y como en los cuentos / la luz duró / por siempre. / Ocultó / en la oscuridad / los llantos y
fatigas. / Solamente / estaban permitidas / las historias / de final feliz, / porque todo lo oscuro /
está a punto de aclararse / en una nueva mañana contigo.
Comemos moras/ del zarzal del camino...
Los días pasan lentamente / lejos de toda obligación, / lejos de mi montaña.
Una nueva mañana contigo / y me olvido de todo lo oscuro.

06.- OLHABIDEKO BORDAN (R.Ordorika)

Baratzean
xoxo beltza,
haritz xaharrak
begien aurre-aurrean,
Larrun gaina,
lainoak mehe,
hego haizeak
orbelak irauli ditu,
baita neure barrenak
eta neure bihotza ere.

Hemen nabil
nola urratsa
aurrera eman.
Ateondoan
jazarrita, hemen,

Olhabidean.

Baratzean
xoxo beltzak
laket du eta
zure zaurien
berririk ez du.
Hegoa harro
heltzen ohi da,
oharkabea,
eta gogoak irauli,
baita neure barrenak
eta neure bihotza ere.

Hemen nabil...

“Ez daiteke zauria senda elorria barnean deino” *.

* Axular-ek esan bezala.

OLHABIDEKO BORDAN. (En la borda de Olhabidea)

En la huerta / un mirlo negro, / ante mis ojos. / La cima del Larrun, / nubes finas, / el viento sur /
revuelve la hojarasca, / también mis entrañas / y hasta mi corazón.

*Aquí estoy / tratando de dar / un paso adelante. / Sentado / junto a la puerta, / aquí en
Olhabidea.*

El mirlo negro / disfruta / en la huerta, / ajeno / a tus heridas. / El viento sur / se levanta / de
pronto, / y remueve mi ánimo, / también mis entrañas / y hasta mi corazón.

*Aquí estoy / tratando de dar / un paso adelante. / Sentado / junto a la puerta, / aquí en
Olhabidea.*

“No se puede curar la herida mientras la espina permanezca dentro...”

07.- EDERTASUNAZ MINTZO ZINEN (R.Ordorika)

Edertasunaz mintzo zinen,
harrapa ezinaz.
Gordean ostatu horietan
ilunabarretan.
Baina denbora ihesi doa,
eder dena berarekin,
ahal bezala ari zinen
bizitzea geroko utziz.

Askatasunaz mintzo zinen
baita gogotik ekin,
borrokara emanak
eta bizitza dohainik.
Eta denbora ihesi doa
hatz zikinduen artetik,
zenbat galdu behar izan den,
zenbat min eta huts egin.

Bizitzaz mintzo zara orain,
hango geroa heldu da,
bete gabeko asmotaz,
kalteaz eta ordainaz.
Baina denbora ihesi doa

berandu baino lehen, tori,
kantutxo hau zuretako da,
adixkidea, ondo bizi.

EDERTASUNAZ MINTZO. (Hablabas de lo bello)

Hablabas de lo bello, / de lo inalcanzable. / Refugiado en aquellos bares / al atardecer. / Pero el tiempo huye, / y se lleva todo lo bello, / hacías lo que podías, / dejando la vida para después. Hablabas de libertad / y actuabas en consecuencia, / entregado a la lucha, / la vida no tenía valor. / Pero el tiempo huye / entre nuestros dedos manchados, / cuánto se ha tenido que perder, / cuánto dolor y cuántos errores. Ahora hablas de la vida, / -aquél mañana está ya aquí-, / de ilusiones incumplidas, / de sus consecuencias. / Pero el tiempo huye / y antes de que sea tarde, toma, / esta pequeña canción es para ti, / amigo, que seas feliz. / Esta pequeña canción es para ti, / amigo mio, te la envío con un beso.

08.- ERREKAZOLA (R. Ordorika)

Errekazola, goroldioz garbia,
urentzako ohantzea.
Urak badoaz errekan behera
itsasorako beren bidean.

Goizean goizik, zubi zaharrear,
gizon bat ikusi dut errekar begira,
ur lasterrari otoitz eginez bezala:
doazela errekan behera
gizakiaren minak,
doazela zauri horiek guztiak
osatzera itsaso gazira.

Orbelak lez, badoaz minak,
ur lasterrean.
Errekaldeko lore urdinak
agur esanez, haiei begira.

Goizean goizik, zubi zaharrear,
gizon bat ikusi dut, errekar begira
ur lasterrari otoitz eginez bezala:
doazela errekan behera
gizakiaren minak,
doazela nahigabe guztiak
osatzera itsaso gazira,
doazela...

ERREKAZOLA. (El fondo del río)

El fondo del río, limpio de musgo, / lecho para las aguas. / Éstas bajan por el cauce / en su camino hacia el mar.
Muy de mañana, en el puente viejo, / he visto a un hombre, mirando al río, / como si rogara a las aguas rápidas: / que se lleven río abajo / todos sus pesares, / que todas esas heridas vayan / a curarse al océano salado.
Las penas se las lleva la corriente, / como la hojarasca. / Las flores azules de la orilla / les dicen adiós, al verlas pasar.
Muy de mañana, en el puente viejo / he visto a un hombre, mirando al río, / como si rogara a la agua rápidas: / que se lleven río abajo / todos sus pesares, / que todos los males vayan / a

curarse al océano salado.

09.- ZORIONEKO MOILAN (R.Ordorika)

Hamar ontzi egunsentiko uretan
arrantza orduak, hemen Baracoan
Zoriona deritzan moilan jarrita nago.

Gizon bat ari da portuan lanean
itsas harriak jartzen banan banan.
Zoriona deritzan moilan jarrita nago.

*Portuonera arribatzeko nahiari jarraitu
kresal usaina sentitu barruan, sentitu.*

Ozeano berak bustitzen bi moila
Zoritxarrekoan kaioak dabilta
Zoriona deritzan moilan jarrita nago.

*Portuonera arribatzeko nahiari jarraitu
kresal usaina sentitu barruan, sentitu*

ZORIONEKO MOILAN. (En el muelle del felicidad)

Diez embarcaciones en aguas del amanecer, / horas de pesca, aquí en Baracoa. / Estoy sentado en el muelle que llaman Felicidad.

Un hombre trabaja en el puerto, / adorna el muro con piedras marinas. / Estoy sentado en el muelle que llaman Felicidad.

Sigue al deseo de arribar a buen puerto, / siente el salitre en tu interior, siéntelo.

Un mismo océano baña los dos muelles, / las gaviotas vuelan sobre el de la Infelicidad. / Estoy sentado en el muelle que llaman Felicidad.

Sigue al deseo de arribar a buen puerto, / siente el salitre en tu interior, siéntelo.

10.- JOAN LASAI (R.Ordorika)

Beste sasoi batean, bizitza,
denbora honetan ez, halako batean.
Beste hiri batera abiatu,
ahotsen artean zu ezagutu.
Baina hor ari zaizkit etxeko hotsak,
herriko kanpaiak,
hego haizea.

Gora eta behera dabila ene gogoa,
ez daki zuzen nondik nora joan.

Joan soseguz,
lasai joan,
haizea lagun da
aldaketan.
Joan soseguz,
lasai joan,
pausoa luze eman
leunean.

Ihesi nahian dabila ene burua,

ilargi beteak erakartzen ura.
Gora eta behera dabila ene gogoa,
ez daki zuzen nondik nora joan.

Joan soseguz...

LASAI JOAN. (Tú tranquilo)

Esta vida en alguna otra época, / no ahora, en algún otro tiempo.
Me iría a otra ciudad, / te conocería entre otras voces. / Pero escucho los sonidos de mi casa, / las campanas de mi pueblo, / el viento sur.
Mi ánimo cambiante, / no sabe a qué atenerse.
Ve con calma, / ve tranquilo, / el viento está a tu favor / en tiempo de cambio. / Ve con calma, / ve tranquilo, / avanza con buen paso / sin obstáculos.
Quisiera escaparme, / la luna llena atrae las aguas. / Mi ánimo cambiante, / no sabe a qué atenerse.
Ve con calma...

11.- ZUHAITZ ALFERRA (R.Ordorika)

“Bizitza gogoz hartu behar da”,
hala esaten didazu,
“ez nagi, ez negarti,
bizitza bakan duzu”.

Baina orduak motelegi doaz,
ahaztu nahi duenarentzat,
beharrik zure aholku dudana,
zure hitz goxo-goxoak.

“Bizitza irriz hartu behar da,
ez alferrik gal kemena,
maitatu une oro,
biharko hemen ez bazina”.

Berba leuna diostazu baina,
nik edontzia hutsik daukat,
nekeza zait arin dena,
beharrik lagun nauzula.

Badakit zuri esker naizela zutik,
zuhaitz alferra duzu ureztatzen.
Oi, Karplatze* auzokoek bezala
ez duzu makal hau ezpalkatzen.
* Bertolt Brecht-ek esan bezala

ZUHAITZ ALFERRA. (Árbol sin frutos)

“La vida hay que tomársela con ilusión,” / es lo que tú me dices, / “ni perezoso, ni llorón, / la vida es lo único.”
Pero las horas pasan demasiado lentas / para el que quiere olvidar. / Gracias a que me das tu consejo, / esas cariñosas palabras tuyas.
“La vida hay que tomársela a risa, / no malgastes tu energía, / quiere en todo momento, / como si mañana no estuvieras aquí.”
Me dices palabras gratas / pero mi vaso está vacío, / ahora me es complicado lo que es fácil, / gracias a que me tienes como amigo.
Sé que estoy en pie por ti, / tú riegas este árbol sin frutos. / ¡Ay!, como los vecinos de Karlplatz,

/ tú no haces leña de este árbol caído.

12.- SEKULABELARDIKO KANTARIA (Mikel Laboari). (R.Orderika)

Egun da abenduaren lehena,
bi mila eta zortzikoa,
gauza ttikien erresumatik
partitu da maisua.

Ume ixilen hondartzan edo
paradisuko ostatuan,
non entzungo ote da orain
ahotsa zilarrezkoa?

*Euskaldun jendea negarrez dago
Eskiulatik Berangora,
sekulabelardiko kantari*,
zure ahotsa entzun guran...*

Abestiaren etxe goienan
kandelak iziotu dira,
Atahualpak eta Etxahunek
zabaldute berria:

Haiekin dela, kantuan ari,
jakin dadila Donostian,
Lekeition eta Baztanen ere
Euskal Herri guztian.

* Joseba Sarrionandiak esan bezala

12.- SEKULABELARDIKO KANTARIA (Cantor del trebol - A Mikel Laboa)

Hoy es el primero de Diciembre / del dos mil ocho, / hoy se ha ido el maestro / del reino de las cosas pequeñas.

En la playa de los niños callados o / en la taberna del paraíso, / ¿dónde oirán ahora / su voz de plata?

Los vascos lloran / desde Eskiula a Berango, / cantor del trebol, / porque quieren oír tu voz.

En la casa más alta de la canción / se encendieron las velas, / Atahualpa y Etxahun / acaban de anunciarlo:

que está con ellos, que está cantando, / que se sepa en San Sebastián, / en Lekeitio, en el Baztán / y en todo el País Vasco.

Fredy Pelaez: Hammond B3

Hasier Oleaga: Perkusioak, Ahotsak.

Arkaitz Miner: Ahotsak.

Grabaketak: **Andy Tommasi. Bedford Studios.** Brooklyn

Laguntzailea: Jeremy Lubsey

Nahasketak: **Jean Phocas. Elkar Estudioa.** Donostia

Laguntzailea: Victor Sánchez

Masterra: **Jonan Ordorika, Jean Phocas. Mamia.** Azkarate.

Aurregrabaketak: Jonan Ordorika. Mamia.

Victor Sánchez. Elkar

Editaiak: Martin Guridi. Sonora. Gasteiz

Victor Sánchez. Elkar
Hammond B3- Jonan Ordorika Pottoko Estudioan. Beasain.

Eskerrik asko:

Lin-Txu. Skuli, Ben, Kenny. Hasier, Lutxo, Arkaitz, Fredy. Jean Phocas, Andy Tommasi. Jonan Ordorika, Victor Sánchez, Martin Guridi, Dani Pérez, Alberto de La Casa. Iñaki Aranbarri, Renata Laszczak. Mireia Sentís. Garbiñe Ordorika, J. A. Irigaray. Pablo Dendaluze. Elkar-eko lagunak: Jitu, Anjel, Juanma, Josebe, Oihana...

Editoriala: © BOZA Ediziogunea.
www.e-boza.com / boza@e-boza.com

Produkzioa: Andrés Camio.
Koordinazio orokorra: Anjel Valdés.

Kontaktua: amaia@akeita.com 00 34 670880640

www.ruperordorika.com
www.elkarargitaletxea.com